

### **LENGOAIA PLASTIKO ETA FIGURATIBOAREN ARTEKO OPOSAKETA ERIZPIDE SEMIOTIKOAK ERABILIZ**

Edozein lengoaia aztertzeko et batez ere ulertzeko, komunikatzeko erabiltzen diren elementuak analisatu beharra dago: hizkuntza aztertzean, zeinu linguistikoaz arituko ginateke eta lengoaia plastikoa aldiz, kolorea, tamainua eta formaz.

Aurrean dugun irudia ikustean, lehen begirada batetan ezin da deus ulertu; hala ere, elementu batzuk ezberdintzen ditugu. Baina nola interpretatu elementu hauek? kasu edo irudi guztiak era berean interpretatu edo analisatu al daitezke?

Lengoaia plastikoa aztertzerakoan, hiru kategoria ezberdinekin topo egiten dugu:
























































a) kategoria kromatikoak → kolorea  
b) kategoria idetikoak → irudia  
c) kategoria topologikoak → kategoria kromatikoak eta idetikoak batzen dituen elementua litzateke (koadroaren kasuan, tela). Kategoria topologiko hau, bestalde, lau erataraz gauzatu daiteke:

- 1 - Ezker-eskuin
- 2 - Goi-behe
- 3 - Bertikal-horizontal erara
- 4 - Diagonal erara.


Irudiarekiko lehen hurbilketa batetan murgiltzeko prest, kategoria kromatikoak kontutan hartu gabe, honako analisi xehea egin dezakegu: Orain arte, badirudi pinturaren mezua koadroaren erdian lekutu izan zela; irudi honetan, koadroaren indarrak erdia galdu ez duen arren, zenbait elementu izkinetan kokatzen direla dakusagu.

Bi elementu nagusi bereizten ditugu orohar:

- 1 - Azala
- 2 - Lerroa edo lineala

|               |   | HIRU PUNTATAKOAK  |   | BI PUNTATAKOAK   | PUNTA BAKARRAK   | PUNTA GABEAK   |
|---------------|---|---|---|--|--|--|
| PUNTA ANITZAK |   | ALDE ZUZENDUNAK   | ALDE OKERDUNAK  |  |  |  |
| AZALAK        |    |    |    | <br><br><br><br><br> | <br>     | <br><br><br> |
|               |    |    |    |  |  |  |
|               |    |    |    |  |  |  |
|               |    |    |    |  |  |  |
|               |    |    |    |  |  |  |
|               |    |    |    |  |  |  |
|               |    |    |    |  |  |  |
| LINEALAK      |  |  |  | <br>   | <br> |  |
|               |  |  |  |  |  |  |
|               |  |  |  |  |  |  |
|               |  |  |  |  |  |  |
|               |  |  |  |  |  |  |
|               |  |  |  |  |  |  |

ERITXIAK



Objetu azalak itxiak dira (Adib: 7) eta besteak linealak ditugu (Adib: 1). Objetu eredu bi hauek, talde ezberdinak osatzen dituzte eta irudizko gaizerrenda umil bat egiten ausartu ezker, honako sailkapena egitera helduko ginateke:

Gainontzekoak, oinarri hauetatik gizendu dira. Elementuak gaizerrenda honetan banatu ondoren, objektu zehatz batzu ezberdintzen hasten gara; hala nola, mendiak (2.b), haitzak (2.a), ostadarra (9), ilargia (4.b), izarrak (8), astroak (7), txoria, lorea, etab...

Objetu guzti hauek beste sailkapen batetan sar ditzakegu:

- a) Elementu lurtarrak: lorea, belarra ((landareak)
- b) Elementu zerutiarrak: astroak, ostadarra, izarrak...
- c) Erdian agertzen diren elementuak: haitzak
- d) Animalia: txoria.

Ordenu honetatik, beste batetara heltzen gara:

- a) Inanimatuak: elementu zerutiarrak eta eskuin-ezker agertzen diren elementuek osatzen dute (b eta c).
- b) Animatuak: gainontzekoak lirateke (a eta d), belarra, loreak eta txoria, hain zuzen.

Ordenu guzti hauen lotura, DENBORA: Irudian mugimendua ageri da: txoria hegaz doa, beherantz; lorea aldiz, gorantz eta haziz. Mendiak eta haitzak airean daude, eskegita, lurralde neutral batean, lorea aurkitzen den leku berean, hain zuzen, ez goian, ez behean.

Gainontzeko elementuak, bata besteari kontrajartzen zaio:

- a) elementu zerutiarrak lurtarrari
- b) biribila linealari: elementu plastikoak borobilak (zerutiarrak) eta lurtarrak linealak dira.
- c) ezkerrekoa eskuinekoari
- d) goikoa behekoari

Lorearen eta txoriaren elementuak ere sailkatu ezker, zerutiar eta lurtarren artean sakabana ditzakegula dakusagu: lorearen elementuak zerutiarrak (ilargia, sustriak, astroak) eta txoriarenak lurtarrak (mendiak, haitzak) dira.

*Narratibitatea:* Zerbait kontatzen hasten garanean, egoera batetik bestera iragaten laguntzen digun elementua, operatzailea deitzen dugu.

Sujetuak ez du zertan pertsonaia berezi bat izan behar, aktorea izango da eta honela deituko diogu. Aktore hau sujetu bakarra anitza, objetua, hartzailea nahiz igorlea izan daiteke eta aktoreak betetzen duen rola «egite sintaktikoa» bezala defini dezakegu, hau da, istorioa egiazkotzat edo gezurtzat hartu eragingo digun elementua.

*Kategoria semikoa:* Sema biren artean agertzen zaigu eta objektuaren funtzioaren arabera definituko da. Sujetuak beti suposatzen du objetua eta objektuak sujetua. Erlazio honi, «egoera sintaktikoa» deritzogu. Erlazio hau teologikoa da, hots, sujetua objektuaren bila abiatuko da.

Irudia aztertzean, lehenengo, sujetuaren performantziak aritu beharra dugu: sujetua objektuarengantz abiatzen da.

Sujetua (txoria)



Objetua (lorea)

Sujetuak objetua lortzearen itzaropena izateak, aktibitatea aldatuko du, sujetua eta objetua harremanetan sartuko dira. Kasu honetan, performantzia aurrera daraman sujetua animalia da eta performantzia hau gerta dadin, guztiz beharrezkoa da:

1) Istoriaren eraldatzailean «sujetu egile» eta «sujetu egoera» bereiztea. Sujetu egoera, konjuntziozkoa edo disjuntziozkoa izan daiteke.

«Sujetu egilea», sujetu eta objektuaren artean operatzen duena da. Eraldaketan eragiten duen aktanteak eragiten duenean, performantzia ematen dela esaten da.

Sujetu eragilea



Objetua

→ eraldaketak

2) Objetuak, beste elementu guztietatik desberdintzen duen balioak izan behar ditu:

a) balio deskriptiboa: aberastasun, kontsumo...

b) balio modalak: ekintza burutzeko aurrejarriko dituen elementu posibleak.

3) Sujetuak ekintza burutzeko asmoa hartu aurretik, egiteko ahalmena izan behar du (egitea nahi izatea, ahal izatea, egin behar izatea, egiten jakitea). Sujetu guztiek beharrezko dituzten lau funtzioak ditugu aipaturikook.

Eraldakuntza ematen duen sujetuak berak eragiten du ekintza. Sujetuaren eta objektuaren artean ematen da istorioa eta egizat edo guzurtzat har dezakegu.

Destinatari eta destinatua arteko harremana: Sujetua destinatua litzateke, objektuaren harreman berezi bat edukitzera bultzatzen bait du destinatarioak. Destinatarioa kasu honetan bizitza edo ordenu naturala litzateke, hots, ordenu naturalak bultzatzen du txoria lorearengana. Destinatua eta destinatariaren artean kontratu bat dago. Destinatariak destinatua bultzatu arren, horrek ez du esan nahi txoriak lorea lortuko duenik.

Badakusagu kontrajarrera bat hemen: lorea objektu bezala hartu ezkerro, objektu horren bila bi sujetu dabilzala argi dago: bata txoria eta bestea lurra. Ongia eta gaizkiaren arteko kontrajarrera deituko zion honi Greimas-ek. Bigarren sujetu hau ANTISUJETUA izango da, ANTIDESTINATARIA. Objektuarenganako borroka luze baten ondoren, sujetu biek akordio batetara heldu beharko dute: manipulazioaren teoriara, hain zuzen. Teoria honen menpe manipulazialea eta manipulatuaren agertzen zaizkigu eta manipulazialearen tresna, egite pertsuasiboa erabiltzen datza. Manipulazialeak, bere nahia lortzeko, manipulatuari bere jakintza ezagut arazten dio, bere ahalmena: kasu honetan, mugimendu litzateke, hegaz egitea. Manipulazialeak bere doia erakutsiko dio manipulatuari eta horrekin, beldurraraztea edo zirikatzea lortzen du. Kasu honetan, manipulazio «sinets arazte» bat besterik ez da. Txoriak lurrari, lorea lortzeko posibilitate gehiago dituela sinets arazi dio. Manipulaziale-

lea sujetu aktiboa da eta pasio egoera hau sintaktikoki edo lerro bidez azaldu da.

*Gai sinbolikoa:* edukia eta espresioaren arteko oposizioan sortzen da.

Lorearen mitoa: testuingurua azpimarratzeko, zera esan behar dago: elementu lurtarrak, irekiak dira, sekreturik gabeak, lurra dute oinarri. Lorea aldiz, elementu zerutiar bezala, airean dago, oinarririk gabe, mundua eraikitzeko zai.

Irudiko elementu guztiek begia erdirantz zuzentzeko eskatzen digute, txoria eta lorearen artean gertatuko denari adi egoteko.

Elementu lurtarrak profanotzat jo ditugu (Adib: txoria), ez oster, elementu zerutiarrak, esateko, lorea.

Txoria gizonetzkoa da (El pájaro) eta lorea emakumezkoa (La flor). Gizonak emakumea izadiko puntu batetan aurkitzen du eta puntu horretan, elementu zerutiarrak nahiz lurtarrak eten egiten dira, gelditu, desagertu. Koadroaren bihotzak lorearen mitoa azaltzen du, emakumearena alegia.

*Ana Urkiza*



ESTUDIO  
FOTOGRAFICO

**ARGALKARI**

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak  
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak  
Fotokopiak (Txikitzeak)*

\*\*\*\*



**ZARBEL** SL  
VIDEO PROFESIONAL

---

|   |  |
|---|--|
| San Miguel kalean, 14<br>Urrut: 673 0509<br><b>48340 Amorebieta</b> | Trañabarren, 13 Bloque 1-4<br>Urrut: 681 1009<br><b>48220 Matiena (Abadiano)</b> |
|---|--|

JUAN MANUEL SASUATEGI AVISA: 944 3500 - Abonada 868